



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko azaroaren 15a

131. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 10-22/POR-00362. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko ZIU pediatrikoaren egoerari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (2. or.).
- 10-22/POR-00363. Galdera, energiaren kostuek izandako gorakada ordaintzeko laguntza-deialdiari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (2. or.).
- 10-22/POR-00364. Galdera, energia berriztagarrietarako proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari dagokionez dauden langileen beharrezanean erantzun ahal izateko neurriei buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (3. or.).
- 10-22/POR-00365. Galdera, ibilgailu elektriko eta konektatuari buruzko Suspertze eta Eraldatze Ekonomikorako Proiektu Estrategikoaren garapenari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (4. or.).
- 10-22/POR-00366. Galdera, Next Generation europar funtsen kudeaketari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (4. or.).
- 10-22/PES-00219. Galdera, Osasun Batzordean minbizia duten haurrentzako arretaren inguruan onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 10-22/OTL-00001. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamena (7. or.).
- Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen barne mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamenduaren 2.1 eta 4. artikulua aldatzeko proposamena (10. or.).

F saila:
GALDERAK

10-22/POR-00362. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko ZIU pediatrikoaren egoerari buruzkoa.*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko ZIU pediatrikoaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak azaroaren 17ko Osoko Bilkuran, ostegunarekin, erantzun dezan:

• Osasun Departamentuak asmorik al du neurriren bat hartzeko, Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko ZIU pediatrikoa hobetzeko?

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

10-22/POR-00363. Galdera, energiaren kostuek izandako gorakada ordaintzeko laguntza-deialdiari buruzkoa.*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, energiaren kostuek izandako gorakada ordaintzeko laguntza-deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak 2022ko azaroaren 17an Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azaroaren 3an, Nafarroako Parlamentuak Foru Lege proiektu bat onetsi zuen, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuari 20.000.000 euroko aparteko kreditu bat ematekoa. Aurrekontu-aldaketa bat da, xede duena presako laguntza-deialdi bat egin ahal izatea Nafarro-

ako enpresentzat, 2022. urtean zehar energiaren kostuek izandako gorakada ordaintzeko.

Horretarako dagoen denbora urria dela-eta, deialdia jada taxututa egonen dela pentsatzen dugu, eta horregatik galdetzen diogu Garapen ekonomiko eta enpresarialeko kontseilariari:

Zer baldintza-sorta ipiniko zaie enpresei, zer betekizun, energia-kostuen gorakada ordaindu ahal izateko laguntzak jasotzeko moduan egon daitezten?

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

10-22/POR-00364. Galdera, energia berriztagarrietarako proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari dagokionez dauden langileen beharri-zanei erantzun ahal izateko neurriei buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, energia berriztagarrietarako proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari dagokionez dauden langileen beharri-zanei erantzun ahal izateko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztzen du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak 2022ko azaroaren 17ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua zer neurri hartzera doa langile-kontratazioari buruz onetsiriko erabaki-proposamena betetzeko, eta energia berriztagarrietarako proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari dagokionez dauden beharri-zanei egokiro eta efizientziaz erantzun ahal izateko, Ukrainako gerraren ondoriozko krisia dela-eta presazko neurriak hartzeari buruzko apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege Dekretutik eratorritako betebeharren ondorioz?

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

10-22/POR-00365. Galdera, ibilgailu elektriko eta konektatuari buruzko Suspertze eta Eraldatze Ekonomikorako Proiektu Estrategikoaren garapenari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ibilgailu elektriko eta konektatuari buruzko Suspertze eta Eraldatze Ekonomikorako Proiektu Estrategikoaren garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak 2022ko azaroaren 17ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Ibilgailu elektriko eta konektatuari buruzko Suspertze eta Eraldatze Ekonomikorako Proiektu Estrategikoaren garapenak zer-nolako eragina izanen du Nafarroako Foru Komunitateko ekonomian?

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

10-22/POR-00366. Galdera, Next Generation europar funtsen kudeaketari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Next Generation europar funtsen kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun den José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak datorren ostegunean, 2022ko azaroaren 17an, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer deritzozu orain arte Next Generation europar funtsekin egin duzuen kudeatze-lanari?

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

10-22/PES-00219. Galdera, Osasun Batzordean minbizia duten haurrentzako arretaren inguruan onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Osasun Batzordean minbizia duten haurrentzako arretaren inguruan onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa. Galdera 2022ko irailaren 12ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-22-PES-00219), informazioa jaso nahi baitu “minbizia duten haurren arretari” buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren informazioa:

1.- Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroan legez ezarritako gaixotasun larri bat edo minbizia duen beren kargurako adingabe bat modu zuzen, jarraitu eta iraunkorrean zaintze aldera lanaldia eta soldata murrizten duten gurasoek, adoptatzaileek edo harrera-egileek pairatzen duten diru-sarreraren galera konpentsatzeko sorospena alda dezan eta, horrenbestez, Opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua alda dezan, tarteak % 50etik % 99ra bitarte igotzeko.

Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak aurreikusita du Mahai Orokorrera negoziatzeko eramatea Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamendua onesten duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua aldatzeko testu-zirriborro bat, besteak beste, aipatutako neurria barne hartuko duena.

11/2009 Foru Dekretuaren jatorrizko testua:

“1. Funtzionarioek eskubidea izanen dute lanaldia erdira murrizteko, ordainsaria murriztu gabe, minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duen seme edo alaba adingabea zaintzeko, baldin eta adingabeko hori zuzenean, modu jarraituan eta etengabe zaintzea eskatzen duen epe luzeko ospitaleratzea badakar. Salbuespenez, lanaldiaren murrizketa handiagoa izan daiteke, %75era

bitartekoa gehienez, frogatzen bada hura beharrezkoa dela lizentziaren helburua betetzeko.”

13 bis artikulua testu berria, urtarrilaren 23ko 5/2013 Foru Dekretuaren bidez gehitua (2013ko otsailaren 1eko NAO):

1. Funtzionarioek eskubidea izanen dute lanaldia erdira murrizteko, ordainsaria murriztu gabe, minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duen seme edo alaba adingabea zaintzeko, baldin eta adingabeko hori zuzenean, modu jarraituan eta etengabe zaindu behar bada gaixotasunaren tratamendu jarraituan zehar, kontuan hartu gabe aurretik ospitaleratu behar izan den ala ez. Salbuespenez, lanaldiaren murrizketa handiagoa izan daiteke, %75era bitartekoa gehienez, frogatzen bada hura beharrezkoa dela lizentziaren helburua betetzeko.

2.- Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroan minbizia duten neska-mutikoen aldi baterako desgaitasuna onar dezan eta Diputatuen Kongresuak 2017an onetsitako legez besteko proposamena aplikatu dezan Nafarroan –horren arabera, minbizia duten haur eta nerabeei % 33ko desgaitasuna aitortzen zaie diagnostikoa egiten den unetik beretik–, Orik 14 urtera bitarteko adingabeek eta haien familiek laguntzak eta zerbitzuak jaso ahal izan ditzaten.

3.- Nafarroako Gobernuak premiatzen da 2. puntuan adierazitako desgaitasuna onar dezan eta onarpen hori urrutetik egin dadin, minbizia duen neska-mutikoak zentro nagusira joan behar izan gabe.

Ekimenaren bigarren eta hirugarren puntuei dagokienez, Nafarroako Foru Komunitateak ez du eskumenik nazio esparruko arau bat aldatzeko, eta horrelakoa da, hain zuzen ere, abenduaren 23ko 1971/1999 ED; beraz, ezin du ezarri desgaitasuna baloratzeko arau horretan ezarritako bestelako irizpiderik, ildo horretan doan legez besteko proposamen bat egon arren. Zuk aipatutako legez besteko proposamenari dagokionez, ez da egin hura ezartzea ahalbidetzen duen lege edo EDrik.

Desgaitasuna baloratzeko baremo berria ezartzen duen Errege Dekretua laster argitaratuko da, eta hor berriazko aipamena egiten zaie egoera horiei. Irizpide berezia jasotzen du minbizia duten haur eta nerabeentzat, baina ez kasu guztietan; bakarrik haurtzaroan eta nerabezaroan izandako neoplasia kasuetan, baldin eta infekzio- eta/edo

toxikotasun-arrisku larria dakarren tratamendu bortitza behar badute edo sarritan ospitaleratzea beharrezkoa bada. Kasu horietan desgaitasuna aitortuko da, aldi baterako. Beraz, neurri hori abian jarriko da desgaitasun-baremo berria arautzen duen dekretua argitaratu eta indarrean sartzean.

Baina, une honetan, abenduaren 23ko 1971/1999 ED dago indarrean, eta bertan oso argi jasota dago neurri terapeutikoak aplikatzeko aukera ematen duten egoeretan ezin dela desgaitasun-maila aitortu harik eta neurri horiek aplikatu arte eta sekuelak iraunkorrak direla ikusi arte.

4.- Nafarroako Gobernua premiatzen da PADI-Haurren Hortzetako Osasun Laguntzaren Programan sar daitezten txantxarrak, lehen hortzaldiko hortz-erazketa aurreratu gabeak eta minbizia duten bigarren hortzaldiko haur nafarren hortz-protesiak.

– Sei hilabete igarota, neurri horietako bakoitzak zer betetze-maila dauka?

– Ez badira bete, zein da Osasun Departamentuaren asmoa, bai eta aurreikusitako kronograma ere?

Haurren Aho-hortzetako Osasun Laguntzaren Programaren (HAOLP) dekretuak (<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2011/256/3/>) ezartzen du 6 urtetik 15era bitarteko hurrek dutela eskubidea eta hortz-prestazioek kanpo uzten dutela esne-hortzeriaren tratamendua.

Desgaitasuna duten pertsonendako Aho-hortzetako Programaren dekretuak ere (<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2003/54/2/>) (baldin eta horretan sartu ahalko balira) prestazioetatik kanpo uzten du esnehortzeriaren edo aldi baterakoaren tratamendua.

Hortaz, indarrean dagoen lege esparruaren barruan, ezin dira artatu HAOLPen ezarritakoaz harago (adinaren eta sartutako prestazioen arabera).

https://www.sanidad.gob.es/profesionales/prestacionesSanitarias/PlanSaludBucodental/pdf/Plan_ampliacion_cartera_bucodental_.pdf

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2022ko urriaren 19an

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduna

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

10-22/OTL-00001. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamena, indarreko Langileen Estatutuaren laugarren xedapen gehigarriekin eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren hirugarren xedapen gehigarriarekin bat.

1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamena, honekin batera doana, onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatze proposamena Erregelamendu Batzordera igortzea, honek erabateko legegintza-eskumenez onetsi dezan.

3. Aipatu Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamenari zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, **azaroaren 25eko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamena

ZIOEN AZALPENA

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak ezartzeko aukera ematen du. Prozedura horiek aplikatuko dira aipatu legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituzten lanpostuetan, sektore publikoko behin-behinekotasun tasa murrizteko xedez.

Bestalde, Nafarroako administrazio publikoen esparruan, 19/2022 Foru Legea, uztailearen 1ekoa, onetsi da zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.

Era berean, jasota utzi behar dugu Parlamentuko Mahaiak, abenduaren 28ko 20/2021 legean ezarritakoari jarraikiz, erabaki bat hartu zuela 2022ko maiatzaren 30ean, zeinaren bidez adierazten baitira aipatu legean ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta, horrenbestez, aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuei loturik dauden lanpostuak, behin-behinekotasun tasa murrizteko xedez.

Prozesu hori burura eramateko, eta erakunde honek duen arau-autonomia baliatuta, bidezkoa da Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua helburu horietara egokitzea, jarraian lanpostu hutsak betetze aldera xede horrekin ezarritako aldi baterako enplegua egonkortzeko aparteko prozesuen bidez.

Zehazki, bost aldaketa sartzen dira. Lehengoaren bidez Estatutuaren 4. artikulua aldatzen da, eta horren bidez ezartzen dira aldi baterako langileak administrazio-araubidean kontrataturik egoteko gehienezko epeak, bai eta epe horiek ez betetzeak dakartzen ondorioak ere. Bigarrenik, 9. artikulua aldatzen da oposizio-lehiaketaren faseen ordena aldatzeko aukera jasotzeko, efizientzia arrazoiek hala justifikatzen dutenean.

Bestalde, xedapen gehigarri berri bat gehitzen da, hamaikagarrena, zeinean aurreikusten baita merezimendu-lehiaketaren edo oposizio-lehiaketaren bidez aldi baterako enplegua egonkortzeko aparteko deialdiak egiteko aukera, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoari jarraikiz, eta, halaber, arautzen baita egonkortze prozesuak ez gainditzearen ondoriozko konpentsazio ekonomikoa.

Horretaz gain, beste xedapen gehigarri bat gehitzen da, hamabigarrena, zeinaren bidez behin-behinekotasuna kontrolatzeko neurriak ezartzen baitira.

Azkenik, beste xedapen gehigarri bat gehitzen da, hamahirugarrena, legezko estaldura emateko Nafarroako Parlamentuan funtzio publikora sartzeko hautaproseduretan parte hartzeko eskubide-engatikotasa bat ezartzeari.

Hori guztia dela-eta, indarrean dagoen Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren laugarren xedapen gehigarriaren eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren hirugarren xedapen gehigarriaren ezarritako prozeduraren bidez, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzen da, ondoren ezarritako moduan:

Artikulu bakarria. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzen da, nondik norako hauekin:

1. 4. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Langile kontratatu dira administrazio- nahiz lan-araubidean aldi baterako dihardutenak Nafarroako Parlamentuaren zerbitzura.

2. Nafarroako Parlamentuak administrazio-araubideko langileak xede hauetarako bakarrik kontratatu ahalko ditu:

a) Aldi baterako programak gauzatzea, azterlan edo proiektu zehatzak edo ohikoak ez diren lan bereziak egiteko. Programa horiek ezin izanen dute hiru urte baino gehiago iraun.

b) Langileak ordezkatzeta.

c) Beren plantilla organikoetan hutsik dauden lanpostuak aldi baterako betetzea, gehienez ere hiru urterako.

d) Behar bezala arrazoitutako langile-beharri-zen berriei aurre egitea, horretarako langile nahikorik ez dagoela frogatuz gero, gehienez ere bederatzi hilabetez. Ezin izanen da inola ere kontratu hori luzatu, ezta beste bat formalizatu ere, premia berari erantzuteko.

3. Langileak administrazio-araubidean kontratatzeak ez du inola ere ekarriko karrerako funtzionarioen izaera aitortzea.

4. Artikulu honen bigarren apartatuko c) letran aurreikusitako kasuan, administrazio-kontratudun langileek betetako lanpostu hutsak betetzeko, lanpostuak betetzeko edo mugikortasunerako Estatutuan aurreikusitako mekanismoetako edozein erabili beharko da.

Hala ere, langilea administrazio-araubidean kontratatu zenetik hiru urte igarotakoan, kontratua azkenduko da, eta funtzionarioek soilik betetzen ahalko dute lanpostu huts hori, kasuan kasuko hautapen prozesua hutsik geratu ezean; kasu horretan, langileak berriro kontratatzen ahalko dira administrazio-araubidean.

Salbuespen gisa, administrazio-kontratudun langileek aldi baterako betetzen duten lanpostuan jarraitzen ahalko dute, baldin eta dagokion deialdia argitaratu bada hiru urteko epean, kontratazioaren egunetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, deialdia ebatzi arte betetzen ahalko du lanpostua, eta kargu-uzteak ez du konpentsazio ekonomikorik ekarriko.

5. Halaber zilegi izanen da lan-araubidean kontratatzea, aldi baterako, zerbitzuaren beharri-zenei erantzuteko beharrezkoak diren langileak, Parlamentuaren aurrekontuek zehazturiko mugen barruan eta aldi baterako langile gisa izan daitezkeen gehieneko iraunaldiak errespetatuz.

6. Langile kontratatuak jasoko dituzten ordainsariak dira betetzen ari diren lanpostuari dagozkionak. Halaber jasoko dituzte graduari dagokion ordainsaria eta emandako zerbitzuengatikot antzinasun-saria, salbu eta beste administrazio publiko batengandik jasotzen badute. Era berean, familiarentzako laguntza jasoko dute, funtzionarioentzako ezarritako modu berean.

2. 9. artikuluko 1. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“9.1. artikulua. Nafarroako Parlamentuko funtzionario izateko izangaien hautaketa meritu- eta gaitasun-oinarrien arabera eginen da, deialdi publikoa eginda eta oposizio bidez edo oposizio-lehiaketa bidez.

Izangaiak hautatzeko prozedura oposizio-lehiaketa denean, eraginkortasuna helburu, oposizio-lehiaketak dituen bi faseen ordena aldatzen ahal da”.

3. Xedapen gehigarri berri bat gehitzen da, hamaikagarrena. Hona testua:

“Hamaikagarrena. Aldi baterako enplegua egonkortzeko aparteko deialdia.

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, salbuespenez, merezimendu-lehiaketaren edota oposizio-lehiaketaren bidez aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdiak eginen ditu, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

Enplegua egonkortzeko aparteko prozedura horiek behin bakarrik eginen dira, eta betiere errespetatuko dituzte aipatu legean ezarritako epeak. Prozesu horiek lehia askearen, berdintasunaren, merezimenduen, gaitasunen eta publikotasunaren printzipioen arabera gauzatuko dira.

2. Oposizio-lehiaketa bidez tramitatzen diren egonkortze prozedurek kasuko deialdian xedatutakoa bete beharko dute. Oposizioaldian 60 puntu emanen dira, eta lehiaketaldian, berriz, 40.

Lehiaketaldia baloratzeko, oposizioaldia gainditu duten izangaiek soilik aurkeztu beharko dituzte merezimenduak.

Oposizio-lehiaketa bidez tramitatzen diren egonkortze prozeduren ondorioz aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendak eratuko dira. Zerrenda horiek subsidiarioki aplikatuko dira, funtzio publikoan sartzeko hautapen prozesu baten ondorioz indarrean dauden kontrataziorako izangaien zerrenden atzetik, baina lehentasuna izanen dute aldi baterako kontrataziorako hautapen prozedura batetik datozen izangaien zerrenda indardunekiko, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak aldi baterako kontratatzeari buruzko Erregelamenduan xedatutakoarekin bat.

3. Merezimendu-lehiaketaren salbuespenezko prozeduraren bidez tramitatzen diren egonkortze prozedurek kasuko deialdian xedatutakoa bete beharko dute. Lanbide-merezimenduen balorazioan 60 puntu emanen dira, eta bestelako merezimenduen balorazioan, berriz, 40.

4. Enplegua egonkortzeko aparteko prozedurak ukitutako lanpostuak aldeztu aurretik eskainiko dira barne mugikortasuneko prozesu batean, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen barne mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamenduan xedatutakoarekin bat.

5. Zerbitzuan emandako urte bakoitzeko ordainsari finkoen hogeitau egunen besteko konpentsazio ekonomikoa emanen da, eta urtebetetik beherako aldiak hilabeteka hainbanatuko dira (hamabi hilero, gehienez ere). Konpentsazio ekonomiko hori administrazio-kontratudun langileentzat izanen da, baldin eta Administrazioarekin duten harremana amaitzen bada ez zaielako esleitu egonkortzeko hautapen prozesuetan deitutako lanposturik.

Izangaiak ez baldin badu parte hartzen lanpostuak egonkortzeko hautapen prozesuan ez du eskubiderik izanen, inola ere ez, konpentsazio ekonomikoa jasotzeko. Apartatu honetan adierazitako ondorioetarako, izangaiak prozeduran parte hartu ez duela ulertuko da hark prozeduran jarraitzen ez duenean hari berari egotz dakiokkeen arrazoi batengatik”.

4. Xedapen gehigarri berri bat gehitzen da, hamabigarrena. Hona testua:

“Hamabigarrena. Behin-behinekotasuna kontrolatzeko neurriak.

1. 4. artikuluan ezarritako gehieneko iraunaldiak ez badira betetzen ukitutako kontratudun langileek konpentsazio ekonomikoa jasoko dute. Konpentsazio hori beren ordainsari finkoen hogeitau egunen baliokidea izanen da zerbitzu-urte bakoitzeko, eta urtebetetik beherako aldiak hilabeteka hainbanatuko dira, gehienez ere hamabi hilekotan.

2. Konpentsazio hori jasotzeko eskubidea lana benetan eteten den egunetik aurrera sortuko da, eta ez-betetzea sorrarazi duen kontratuarekin soilik lotuta egonen da zenbatekoa.

3. Ez da konpentsazio-eskubiderik izanen zerbitzu-harremana diziplina arrazoiengatik edo borondatez uko egiteagatik amaitzen bada.

4. Arlo honetako jarduketa irregularrek indarreko araudiaren arabera erantzukizunak eskatzea ekarriko dute”.

5. Xedapen gehigarri berri bat gehitzen da, hamahirugarrena. Hona testua:

“Hamahirugarrena. Funtzio publikoan sartzeko hautaprozeduretan parte hartzeko eskubideengatik tasa.

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Parlamentuan funtzio publikora sartzeko hautaprozeduretan parte hartzeko eskubideengatik tasa kudeatu, likidatu eta bildu ahalko du, Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei buruzko otsailaren 11ko 2/2021 Foru Legean xedatutakoarekin bat.

2. Hautapoben deialdietan espresuki finkatuko dira izangaiek eskubideak aurkezterakoan ordaindu beharreko azterketa eskubideak.

3. Hautapoba bakoitzean biltzen diren azterketa eskubideak Nafarroako Parlamentuko aurrekontuko diru-sarrerak izanen dira”.

Xedapen iragankor bakarra. Ondorioak

4. artikuluari testu berria ematen dion eta hamabigarren xedapen gehigarria gehitzen duen artikulua bakarraren 1. eta 4. apartatuetan jasotako aurreikuspenak soilik aplikatuko zaizkie Estatutuaren aldaketa hau indarrean sartu ondoren kontraturiko aldi baterako langileei.

Azken xedapena. Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen barne mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamenduaren 2.1 eta 4. artikulua aldatzeko proposamena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen barne mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamenduaren 2.1 eta 4. artikulua aldatzeko proposamena, legelari nagusiak aurkeztua, eta Langileen Batzordeari entzun ondoren, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatu-tuaren lehenbiziko xedapen gehigarriari jarraikiz, honako hau ERABAKI DA:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen barne mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamenduaren 2.1 eta 4. artikuluen aldaketa; jarraian jaso da horien idazketa.

2. Erabaki hau eta onetsitako aldaketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen barne mugikortasun horizontalari buruzko Erregelamenduaren 2.1 eta 4. artikulua aldatzeko proposamena

1. artikulua. 2. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“1. Lanpostuen deialdi publikoa egin baino lehen, Nafarroako Parlamentuak barne mugikortasuneko prozesu bat sustatuko du, eta 3. artikuluan jasotako eskakizunak betetzen dituzten Parlamentuko funtzionarioei eskainiko dizkie hutsik dauden lanpostuak”.

2. artikulua. 4. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“4. artikulua.- Mugikortasun prozedura legelari nagusiaren zirkular baten bidez hasiko da, eta zirkular hori lanpostu hutsei dagokien kidegoko funtzionario guztiei eta Langileen Batzordeari helaraziko zaie. Nafarroako Parlamentuaren iragarki taulan ere argitaratuko da zirkularra.

Zirkularrak honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

- zer lanpostutarako egiten den deialdia.
- ohartarazpena, jakinarazteko prozesuko parte-hartzaileek lanpostuak aukeratzean sortzen diren lanpostu hutsetara ere zabalduko dela prozesua.
- eskabideak aurkezteko epea.
- lanpostuak aukeratzeko lehentasun-ordena finkatzeko irizpideak, 5. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Lehentasun-ordena epaimahai batek erabakiko du, eta honako kide hauek osatuko dute epaimahaia: legelari nagusiak edo hark eskuordetutako legelariak, legelari nagusiak izendatutako zerbitzuen buruak edo buruek eta Langileen Batzordearen ordezkari batek.

Behin lehentasun-ordena ezarritakoan, eta hurrengo hamar egunen barruan, legelari nagusiak ekitaldi batera deituko ditu prozesuan parte hartzen ari diren funtzionarioak, eta lanpostu hutsak aukeratu dituzte, aurrez ezarritako lehentasun-ordenan. Ekitaldi horretan, lehentasun-ordenaren arabera lanpostuak aurrez aukeratu dituzten funtzionarioek hutsik utzitako lanpostuak ere aukeratu ahalko dituzte funtzionarioek.

Lanpostu hutsen aukeraketa bukatutakoan, legelari nagusiak ebazpena emanen du, prozesuaren emaitza den lanpostuen esleipena gauzatzeko aldera”.

Azken xedapena. Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

